

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko abenduaren 3an aurkeztuko du

**Ho Tzu Nyen: *Ezagutzen ez denaren hodeia***

## Ho Tzu Nyen: *Ezagutzen ez denaren hodeia*

- Noiz: 2015eko abenduaren 3a–2015eko apirilaren 24a
- Komisarioa: Lucia Aguirre
- Film & Video aretoa (103)

2015eko abenduaren 3tik 2016ko apirilaren 24ra, Guggenheim Bilbao Museoa Ho Tzu Nyen-en *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of the Unknowing*) artelana aurkeztu nahi dizue. 2014an inauguratutako Museoko Film & Video aretoak, bideo-arte, bideo-instalazio eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskainitakoa, hartzen duen seigarren instalazioa da.

Ho Tzu Nyenek (Singapur, 1976), hodeiaren elementua aukeratu du Hego-ekialdeko Asiaren sortzeari buruzko mitoak eta bertako historia geopolitikoa elkarren aurrez aurre jartzeko. *Ezagutzen ez denaren hodeia* (2014) kanal anitzeko bideo-instalazioa da eta ikuslea inguratu eta bideoen edukian murgilarazten du. Hodei itxuragabe eta iheskorren irudikapena aztertzen du Hok artelan honetan. Bideoak, antzeppen testuinguru batean aurkeztua, zortzi istorio dauzka, eta Singapurreko babes ofizialeko pisuen etxadi batean jazozen dira, toki abandonatu eta xumean. Zortzi istoriotako bakoitzak pertsonaia bati erreparatzen dio; hodei etereo batek ezustean harrapatzen ditu pertsonaia horiek, eta haien ingurune hurbila estaltzen du. Eszenek artearen historiako artelan adierazgarriak egiten diete erreferentzia, direla Mendebaldeko maisuek egindakoak, adibidez, Caravaggio, Francisco de Zurbarán, Antonio da Correggio, Giovanni Lorenzo Bernini eta René Magritte; direla Ekialdekoek egindakoak, adibidez, Mi Fu eta Wen Zhengming txinatarrak.

*Ezagutzen ez denaren hodeia* 2011ko Veneziako Bienalean Singapurren ordezkari izateko sortu zen, eta izena XIV. mendearen bigarren erdian ingelesez idatzitako tratatu anonimo batetik datorkio. Literatura mistiko ingelesean eragin gehien izandako idazlanetako bat da, tradizio neoplatoniko kristauan kokatua eta kontenplazioko otoitza helburu duena. Instalazioak, halaber, *Théorie du nuage. Pour une histoire de la peinture* (1972) liburua hartzen du inspirazio-iturri, Hubert Damisch filosofo frantsesarena, eta hodeiaren ikonografiak artearen historian izandako garrantzia aztertzen du, sinbologiara eta semiologiara joaz.

Hodeia elementu errepikakorra da Ho Tzu Nyenen lanean, aurreko artelanetan ere ikus daitekeen bezala, adibidez, *Utama: Historiako izen guztiak dira* (*Utama: Every name in history is*) edo *Hamar mila tigre* (*Ten Thousand Tigers*). Horietan ere, Ekialde eta Mendebaldeko arte, kultura, historia, musika eta filosofiako erreferentziak sartzen ditu. Artistak honela azaltzen du hodeiei buruz daukan interesa: “Hodeiek interesa pizten zidaten, forma eta konfigurazio bakoitzak, eta askotariko pinturen eta tradizio ikonografikoen bitartez horiek behatzea, poesia erromantikoaren bidez, eta nefrologiaraino, natura hilak, Magritteren pintura, tinta txinatar bidezko pintura, laino-ganberak, eta abar”.

Instalazioak soinu-banda bat dauka lagungarri, artistak 200 bat abestitako musika-pasartetan oinarrituz aukeratutakoak, guztien letretan ere hodeiak aipatzen dituztenak. Artelana, berez, makina moduko bat da; artistaren eraginak eta aitzindariak nahastu eta birmoldatzen dituena, narrazio polisemikoa osatzeko. Lau pantaila handik antzezpen moduko giro trinko batean murgiltzen dute ikuslea, eta horrek areagotu egiten du instalazioak zentzumenetan uzten duen arrastoa. Veneziako Bienaleko artelan honen aurkezpenean, Ho Tzu Nyenek ke-makinak erabili zituen artelanak zentzumenetan daukan oihartzuna nabarmentzeko. Artistaren helburua hodeiaren ikonografia trszendentziaren eta espiritualtasunaren metaforatzat hartzea da eta, aldi berean, ikusizko zein soinu-zko erreferentzia ugari ekartzea, ikusle bakoitzak bere zentzumenezko esperientzia izan dezan.

## Biografía

Ho Tzu Nyen Arte Ederretan lizentziatu zen 2001ean Melbourneko Victorial College of Arts-en, Australian, eta Hego-ekialdeko Asiako ikasketei buruzko masterra amaitu zuen National University of Singapor-en (2007). Zineman, bideoan eta performancean lan egin du batez ere eta, oraindik orain, girodun multimedia-instalazioekin esperimentatu du. Bere artelanetan, artistak mito epikoen egiturak bere egiten ditu, eta diskurtsoko tresna bihurtzen ditu bere lanean.

Ho Tzu Nyenek bakarkako erakusketak egin ditu museo eta galerietan, adibidez, Singapurreko Substation Gallery-n, Adelaideko Contemporary Art Centre of South Australia-n, Sidneyko Artspace-n eta Tokioko Mori Art Museum-en. Bere erakusketa kolektibo garrantzitsuenen artean, ondorengoak aipa daitezke: São Pauloko 26. Bienala (Brasil, 2004), Fukuokako Arte Asiatikoaren III. Trienala (Japonia, 2005), Singapurreko I. Bienala (2006), *Thermocline of Art: New Asian Waves* (ZKM, Karlsruhe, Alemania, 2007), Asia Pazifikoko VI. Trienala (Queensland Art Gallery, Brisbane, Australia, 2009), Aucklandeko V. Trienala (Auckland Art Gallery, Zelanda Berria, 2013), *No Country* (Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 2013), Shanghaiko X. Bienala (Shanghai Power Station of Art, Txina, 2014), eta Kochi-Muzirisko II. Bienala (Kochi, India, 2014). Bere filmak Canneseko Zinemaldiko 41. Hamabostaldian erakutsi dira, baita Veneziako 66. Nazioarteko Zinemaldian ere (2009). Bere antzerki-proiektuak Kunsten Festival des Arts-en aurkeztu dira (Bruselas, 2006 eta 2008), baita Theater der Welt-en (Mulheim, Alemania, 2008) eta Wiener Festwochen-en ere (Viena, Austria, 2014).

2006an, Tzu Nyenek *Gernika proiektua* (*The Guernica Project*) aurkeztu zuen Madrileko ARCO azokan: Picassoren artelanean oinarritutako 300 piezako buru-hausgarri bat da eta, duela gutxi, 2011n, Singapurren ordezkaria izan zen Veneziako 54. Bienalean, *Ezagutzen ez denaren hodeia* piezaz.

## Film & Video aretoa (103. gela)

Guggenheim Bilbao Museoaren Film & Video gela 2014. urtean inauguratu zen Guggenheim Bildumetako zein nazioarteko beste bildumetako bideo-arte, bideo-instalazioak eta mugimenduan diren irudiak erakutsi ahal izateko. Iragan urte osoan, Film & Video gelak nazioarteko ospea duten hiru artistaren ikus-entzunezko artelanei eman die ostatu. Lehenengo bideo-instalazioa, 2014ko martxoan inauguratutakoa, *Erlojua* (*The Clock*, 2010) izan zen, Christian Marclay diziplinarteko artistarena;

ekainean, berriz, Ragnar Kjartansson artista islandiarrak *Bisitariak* (*The Visitors*, 2012) instalazioa aurkeztu zuen; 2014ko urritik 2015eko martxora, Rineke Dijkstra bideo-instalazioa ikusteko parada izan genuen, *The Crazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee Liverpool, UK*, 2009) deitutakoa. 2015eko martxotik uztailearen 5era, *Hariaren ibilbideak* (*Thread Routes*, 2010-) deitutako Kimsooja artistaren instalazioa ikusi izan dugu eta, uztailearen 16tik azaroaren 22ra, *Parallax* bideoa (*Parallax*, 2013), Shahzia Sikander artista pakistandarrarena.

## Azaleko irudia

Ho Tzu Nyen (Singapur, 1976)

Fotograma: *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of Unknowing*), 2011

Lau kanaletako koloretako bideo instalazioa, soinuduna, 17 min, agertoki-argiduna

Edizioa: 1 aletik 1.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Guggenheim UBS MAP Eskuraketa Funtza, 2012

2012.141

©Ho Tzu Nyen

## Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Prensa irudiak:  
**Ho Tzu Nyen: *Ezagutzen ez denaren hodeia***  
**Guggenheim Bilbao Museoa**

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

Ho Tzu Nyen (Singapur, 1976)


Fotograma: *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of Unknowing*), 2011

Lau kanaletako koloretako bideo instalazioa, soinuduna, 17 min, agertoki-argiduna

Edizioa: 1 aletik 1.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Guggenheim UBS MAP Eskuraketa Funtsa, 2012  
2012.141

©Ho Tzu Nyen



Ho Tzu Nyen (Singapur, 1976)

Fotograma: *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of Unknowing*), 2011

Lau kanaletako koloretako bideo instalazioa, soinuduna, 17 min, agertoki-argiduna

Edizioa: 1 aletik 1.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Guggenheim UBS MAP Eskuraketa Funtsa, 2012  
2012.141

©Ho Tzu Nyen



Ho Tzu Nyen (Singapur, 1976)

Fotograma: *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of Unknowing*), 2011

Lau kanaletako koloretako bideo instalazioa, soinuduna, 17 min, agertoki-argiduna

Edizioa: 1 aletik 1.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Guggenheim UBS MAP Eskuraketa Funtsa, 2012  
2012.141

©Ho Tzu Nyen



Ho Tzu Nyen (Singapur, 1976)

Fotograma: *Ezagutzen ez denaren hodeia (The Cloud of Unknowing)*,  
2011

Lau kanaletako koloretako bideo instalazioa, soinuduna, 17 min,  
agertoki-argiduna

Edizioa: 1 aletik 1.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Guggenheim UBS MAP Eskuraketa Funtsa, 2012

2012.141

©Ho Tzu Nyen



Ho Tzu Nyen (Singapur, 1976)

Fotograma: *Ezagutzen ez denaren hodeia (The Cloud of Unknowing)*,  
2011

Lau kanaletako koloretako bideo instalazioa, soinuduna, 17 min,  
agertoki-argiduna

Edizioa: 1 aletik 1.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Guggenheim UBS MAP Eskuraketa Funtsa, 2012

2012.141

©Ho Tzu Nyen

